



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

586. zkia.  
XIV. urtea  
2006ko irailaren 29a



# Lau emakume elgoibartar Mont Blanc-en



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### **Blena**

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### **Etxekit**

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### **Garcia**

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### **Imar**

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### **Lodoso**

Lelhoak  
Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilloia 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### **Soraluze**

Lelhoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### **Ulazia**

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### **Antonio Markez**

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### **E. Arandia**

Urasandi, 22. beheka  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

### **Ongi**

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### **Pagoaga**

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### **Pagoerrot**

Herriko Enparantza, 10 beheka  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### **Tellabide**

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### **Zaldua**

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 05

### **Zubizarreta instalazioak**

Ubitarte, 5 beheka  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Elektrizitatea

### **Aramar**

Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### **Azpeleta**

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### **Joseba**

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### **Urzelai**

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Proiektu eta erreformak

### **Bigara Erreformak**

San Frantzisko, 11-5  
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96

### **Estudios Arrillaga**

Errosario, 15 beheka (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 beheka (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Pinturak

### **Blok dekorazioa S.L.**

Santa Klara, 26 beheka ezk.  
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

### **Ipintza**

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



## Autoentzako tindatutako kristalak

### **Glas Control S.L.**

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



## Indusketa lanak

### **Lekunberri Indusketak**

Indusketa eta Indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.com  
www.excavacioneslekunberri.com





## Ez dela etxe berriak behar?

Elgoibartarrok etxe berriak egitearen kontra omen gaude. Hala zioten, behintzat, aurreko astean astekari honetako Bai ala ez? atalera erantzun zutenen % 84ak. Eta, orduan, zergatik betetzen dira egiten dituzten etxe berri guztiak? Beharrik ez baldin badaukagu, zergatik erosten dira etxe berriak? Etxeak egin eta egin dihardute, eta, oker ez banago, amaitu orduko betetzen dira denak. Eta etorkizunean ere etxeak egiten segituko dute, nahiz eta guk beharrik ez dagoela esan. Izan ere, etxeak ez dituzte beharra dagoelako egiten, jendeak erosi egiten dituelako baizik.

M.O.

## Esker onez

Elgoibarko 18/98+ Lan Taldeak, eskerrak eman nahi dizkizue joan den ostiralean, irailaren 22an, Herriko Antzokian antolatutako hitzaldira etorri zineten guttiori eta bertan batutako diru laguntzagarrik: Eskerrik asko!

Eta aldi berean, saio honetan garatu diren ikuspegien kalitatea eta elkarren osagarritasuna nabarmendu nahi ditugu.

Guztion lagunza behar dugu:

Euskadiko Kutxa:

30350149401490027825

**ELGOIBARKO 18/98+ LAN TALDEA**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.

2. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.

4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...

5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.




**barren**

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriando, Amaia Erkizia **MAKETATZAILAK** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Uruzuno **INPRIMATEGIA** Gertru **TRADA** 4.545 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

• **Jende askok ez du zaborra kontedoretara botatzen:** Begira nola aurkitu ditugun Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor kontenedoreak. Ez dakigu zein den arrazoia, baina jende askok zaborra kanpoan lagatzen du. Zabor kontenedoreak beteta daudelako, alperkeriagatik edota, poltsa handiak ez direlako zulotik kabitzen izango da, agian. Dena dela, lurrazpiko zabor kontenedoreekin badirudi atzerapausu bat eman dugula, eta aspaldiko garaietan bezala, zaborra lurrean pilatzen hasi gara. Dotoreak badira, baina badirudi oso praktikoak ez direla batzuentzat.



## TXALOAK

• **Txalo bero bat 18/98+ plataformari joan zen ostiraleko hitzaldiagatik:** "Hitzaldi interesgarria izan zen benetan, oso gustura egon ginen. Jende mordoak bildu zen eta hizlariak primeran aritu ziren".



## GALDERA

• **Zergatik ez dute jotzen Parrokiako kanpaiak gauean?** Parrokiako kanpaiak gauez isiltzearen erabakia ez da herritar guztien gustukoa izan. Benantzio Otaegi parrokoak eman digu honen azalpena: "Gaueko orduetan Parrokiako kanpaiak isilik mantentzeko eskaera egin ziguten zenbait herritarrek, kanpaiak loa galarazten dietelako. Zentzuzkoa iruditu zitzaigun eskaera, beraz, 22:00etatik 8:00etara kanpaiak isilik mantentzea erabaki dugu. Batzuentzat kanpaiak erreferentzi dira, baina ulertuko dutelakotan gaude. Bestalde, Loiolan, Arantzazun eta Arraten ere, aspaldi hartu zuten erabaki hau. Herritarren atsedena, sosegua eta ongizatea zaindu nahi izan dugu".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Saileko Zuzendaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia





## URRUZUNOREN luma

### Beldurra

Zarraila beltzaren hutsala... Inoiz jari izan naiz atearen beste aldera begira. Eskaileretako istorioak, igogailuz datozenen nekatu aurpegiak, Etsa puskatu eta laranja bila dabilen amona...

Baina gaurko honetan, zarraila beltz ikusten dut; irteerarik gabeko tunela balitz modura. Eta irteera inoiz aurkituko ez diodan beldurrez begiak itxi ditut. Agian nahiago dudalako neure iluntasuna beste inork eragindakoa baino.

Orduan, iluntasun horretan, giltza bat etorri zait burura. Giltza majikoa. Ate guztiak zabaldu eta hasiera bateko beltza zuri bihurtzen duena. Baina gogoan baino ez zen nire baitan zebilena, nahimena edota batzuk dioten modura: ilusioa.

Baliteke benetako iluntasuna zer den ez jakiten, edota inoiz ez ezagutzea. Baina bene-benetan diot, gaurko honetan beldurra sentitzea zer den ezagutu dudala. Ate osteko beldurra, hiri handi batean ezezagun izatearen beldurra... Azken finean, giltza majikoa galdu izanaren beldurra.

*Maialen Olazabal*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### AINTZANE GONZALEZ

DIS-ART DISEINU  
ESTUDIOKOA

#### Dekorazio estilo bat?

Funtzionala: Gauza arinak, garbitzeko errazak eta politak. Bezeroaren estilora egokitu behar da dekorazioa.

#### Etxeko txoko kuttuna?

Musika entzun, irakurri edo besterik gabe egoteko daukadan txokoa.

#### Gustuko altzari bat?

Chaiselounge, sofa eta aulki baten erdibideko altzaria.

#### Etxetresnen artean, asmakuntzarik handiena?

Lapiko espresa eta urrutiko kontrola.

#### Praktikotasuna eta artea bateragarriak al dira?

Badira. Are gehiago; edozein disenatzailearen helburua izan behar dira.

#### Zein da dekoratzen zailagoa: 30 m<sup>2</sup>ko apartamendua ala txalet bat?

30 m<sup>2</sup>ko apartamendua erronka politagoa da. Batez ere funtzionaltasuna eta espazio libreak uztartzea.

#### Ze zine izarren etxea dekoratuko zenuke gustura?


Eusebio Poncelarena. Minimalista estiloan dekoratuko nioke, etxean denbora gutxi egiten duen itxura baitu.

#### Siesta; bai ala ez?

Bai, motza eta sofan etzanda.

## komikia

*Hil da gero...*



*Kokoe 064*

## [ AKORDATZEN NAIZ ]



**JOSE MARI BETELU**

1932an jaioa

### «Garraioak»

**G**u gaztiak ginanian ez zauan transporterik, eta alde batetik bestera oiñez ibiltzen giñan. Mendira jun bihar giñala, ba herritik oiñez, Eibarrera zinera guazela, ba oiñez. Diru pixkat irabazten hasi giñanian, jun oiñez egitten genduan eta bueltia trenian. Danerako ez jakun aillatzen. Pelikulia ikusi, eta jun-etorrixa trenian egittia garesti urtetzen zan. Oiñ 500 metro egittiak ere perezia ematen

digu askotan, baiña lehen ez genduan bi aldiz pentsatzen. Karreteran ere kotxerik ez zan ibiltzen, orduan lasai-lasai juten giñan.

Abioia ez dot sekula probau. Pelikuletan bakarrik ikusi dot. Ez dia bildurrik ematen, baiña ez naiz sekula urrutira jun, eta ez dot biharrik euki. Ahal badot nahixago izaten dot Euskal Herrixan geratzia, eta horretarako ez da abioirik bihar.



## [ GURE BERBAK ]

### Baldintzako esaldixak (1)

Esaldi nagusixan agertzen dana gertatzeko baldintzaren bat adierazten debena dira baldintzazkuak. Hemen ere forma bat baiño gehixago dago, eta saillian aztertuko ditugu.

Arruntena eta erabillixena BA- aurrizkixa da, batzuetan BALDIN bat daruala ezkerretara.

- *Da euskeraz entzuten bahixan maistriak, erun aurrera ta belauniko.*
- *Lagako bagendu bixarko ere... kalterako ez.*
- *Orduan, egualdi ona bazan, ba ni abarketa zurixekiñ lehenengo.*
- *Basarixan illunduko espaleu, ez giñoko lagako lanari, eh?*

Aurrez esan bezela, BALDIN ere sartu leike aurretik. Esanahixa ez dio aldatzen esaldixari, baiña indar pixka bat gehixago eman edo baldintzia argixago laga, bai.

- *Antxobia txakur haundixan baldin badago, ekari. Da handik gora badago, ez ekari.*
- *Eta nik Azkarate gaiñian, lelengo lana in nabana zan, bueltia eman automobillari, kale aldera ero hona herri aldera begira jarri, deskuiduan estuasun bat sortzen baldin bazan prest eukitzeko alde egitteko.*

*Jesus Mari Makazaga*



**Karrikizano**  
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

*Arrieta*  
San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



**MIKAVOSA**  
Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA  
MULTIKOPISTAK  
FOTOKOPIADORAK  
PLANOEN BIRREGILEAK  
ERLOJU INDUSTRIALAK  
MARRAZKETA MATERIALA  
INFORMATIKA  
FAX



EMAKUMEEN ALDARRIKAPENA

## MONT BLANC PUNTARAINO


*Uztailaren 22a. Goizeko 9:00ak dira Mont Blanc-eko gailurrean. 4.808 metrotara aspaldi argitu zuen eguna. Elur zuriarekin kontrastea eginez ikurrin bat, eta atzean, 19 emakume euskaldun, 40 eta 65 urte bitartekoak denak; pozak txoratzen. Pozik, Mendebaldeko Europako mendirik garaienaren tontorra zapaldu dutelako, eta, batez ere, guztiek lortu dutelako igotzea. Lau bide ezberdinetatik abiatu ostean, tontorrean egin dute bat ordu erdiko tartean. Marimendi Taldeko mendizaleak dira, eta tartean, lau elgoibartar daude: Lurdes Zubiaurre, Lorea Vila, Arrate Zubia eta Marije Mendikute. 40 urtetik gorako emakume euskaldunek aisialdiaz gozatzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi zuten Mont Blanc-eko gailurrera igoz.*

"Gailurrean jazo zena oso arraroa izan zen. Lortu genuenaz ez ginela jabetzen uste dut. Ezin sinistuta geunden, batez ere, denok lortu izanaz. Batzuk negarrari eman zioten, garrasi bikainak bota beste batzuk, eta egon zen tontorrari bueltaka hasi zenik ere. Ni neu, erdi joanda egon nintzen, momentuaren emozioak gaintitu ninduen eta ez nuen behar bezala gozatzetik izan". Lorea Vilak Mont Blanc-eko gailurrean izan zituen sentipenak dira. "Berbaz adierazteko sentimendu konplikatua dira, azaldu ahal izateko bizi egin behar dira" diosku Lurdes Zubiaurrek. Bilbon bizi den Arrate Zubia eta Iruñean bizi den Marije Mendikute elgoibartarrekin batera talaia altuan laga zuten laurek gure herriaren izena. Marimendi taldearekin joan

ziren, Euskal Herriko beste 15 emakumerekin batera eta *Mendiak eta Herriak*eko zortzi gidariren laguntzarekin. "Gidariak ere harrিতa zeuden gure lorpenarekin. Alpeetan ohikoa ez den arren, demaseko suertea eduki genuen eguraldiarekin eta aklimatazio oso ona eginda joan ginen Mont Blancera". Suitzako Saas Fee bailaran egin zuten altuerarako aklimatazioa. "Gero aurkituko genuena prestatzeko Mont Blancen ematen diren kondizio antzerakoak dituzten mendiak aukeratu zituzten apropos Felipe Uriarte eta gainerako gidariak. Weissmies (4.023 m.) igo genuen lehenik; izotz, elur eta arrailaz jositako mendizarra. Lagginhorn (4.010 m.) mendian, aldiz, harria besterik ez genuen topatu".

### LAU BIDE EHKO EMAKUMEENTZAT

Chamonixen lau multzotan banatu zen taldea. Arrate Zubiaren taldeak Hiru Zurien bidetik egin zion kolpe mendiarri. Frantziako bide arruntetan ederrena da, agian. Malda handiak irabazi behar dira eta tontorrerako bidean, Mont Blanc du Tacul-era (4.248 m.) eta Mont Maudit-era (4.465 m.) hurbiltzen da ibilbidea (ez dira tontorrak zapaltzen, ondoko atakak baizik). "Beraiek izan ziren tontorrera iristen lehenak goizeko 8:15 inguruan". Lurdes eta Lorearen taldea Gouterretik iritsi zen tontorrera 8:50ean. Frantziatik abiatuta, biderik arruntena da, masifikatua sarri askotan. Trepada errazekoa bada ere, gandor estu batetik egiten du gora. Mendi-babes bat erabiltzen da normalean: Refuge de Goû-







ter (3.817 m.). Hirugarren talde bat, Italiatik (Gonella) abiatuta iritsi zen gora 9:00etarako. Azkenik, emakume bakarra ausartu zen Bionnassaytik. Lau bideetatik estetikoena da askoren ustez, eta eskalada pausu zenbait eskatzen dituena. "Bide gogorrena eta arriskutsuena zen arren, bertatik joan zena oso ohituta dago, triatloietan eta fondoko eskian aritzen den emakume gogorra baita" argitzen du Loreak. Gainerako mendizaleen artean denetarik zegoela aitortzen dute, "batzuk sekula kranpoirik jarri gabekoak ziren edo kordadan ibiltzera ohitu gabekoak. Primeran moldatu ginen baina".

### MENDIARI BELDURRA?

"Hasiberrien ezjakintasunak edo inozentziak beldurrik ez izaten laguntzen du. Gainera, bide erdia gauzez egiten duzunez, bueltan konturatzen zara; ai Jainkoa, nondik ibili gara! Argazkiak ikusten ditudanean beldur gehiago pasatzen dut, pare batek inpresioa egiten didate. Eta noski! gidariek segurtasun handia ematen dute" gogoratzen du Lurdesek. Loreak talde barruko giroari zion beldur gehiago "ez genuen elkar ezagutzen, baina gure arteko erlazioa eta

gidariek eduki duguna 10ekoa izan da, ezin hobea". Emakumeen arteko konexio berezia aipatu digu, "gizon bati Mont Blancetako tontorrera iritsi orduko zer ikusi duen galdetuz gero, zera erantzungo luke: ekialdean Zermatt, iparraldean Jorasseak, e.a. Aldiz, gure artean, denok ailegatzea zen lehentasuna eta lau bidetatik abiatu ginenez, gainontzekoak iritsi al ziren zen gure kezka nagusia. Gizon eta emakumeok gauza berdinak egin arren, beste modu batera disfrutatuta eta ulertu ditzakegu gauzak. Alpeetan asko ibiltzen den Marian Arin, antolatzaileak, azpimarratu zuen gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun hau, berak ikusitakotik, alegia, beti gizonez inguratuta ibiltzea tokatu baitzaio".

Ekimenak oihartzun handia izan du medioetan ere. Tontorrera iritsi zirenean Euskadi Irratiarekin zuzeneko konexioa egin zuten, "bat baino gehiagok aipatu digu gero, zuzenean entzun gintuela, lagun eta ezagun gehienak jakinaren gainean zeuden-eta". Prestaketetan ari zirenean ere, Bertatik Bertara saioko aurkezleak, Estitxu Fernandezek, beraiekin igo zuen Vignemal mendia eta Roge Blascok ere birritan eraman ditu bere irratsaioa.

### ONGI-ETORRI APARTA

Ettxera itzuli zirenean izugarritzko ongi-etorria egin zieten lagun eta ezagunek, "Autopistatik gentozela pankarta handi bat ikusi genuen lehenik. Denak Madalan zeuden zain. Jendetza hura ikusita autobusetik atera edo ez zalantzan egon nintzen. Dantza batzuk ere eskaini zizkiguten, desmadre totala izan zen, hunkigarria benetan. Gure espedizio-kide bilbotarrak harrituta geratu ziren harrerarekin eta negar malkoak ere atera zitzaizkien. Ez dakit horrenbeste merezi genuen. Gaur egun ez da munduko beste ezer Mont Blancera igotzea, ehunka lagunek igotzen dute urtean. Izatekotan, 19 emakumek, adinekoak gainera, Mont Blancera igotzeak dauka meritua".

Mont Blancetako hasiera besterik ez da izan. Marimendik talde bezala funtzionatzen jarraitzeko asmoa dauka eta ari dira hurrengo irteera prestatzen: "nora ez dakigu, baina ziur egingo dugula. Bestalde, jende berria animatzea espero dugu, ez baita talde itxi bat".

Baldintza bakarrak: emakumea, euskalduna, mendizalea eta 40 urtetik gorakoa izatea.

## [ PROTAGONISTA ]



### Xabier Gorostiza

13 urte zituela hasi zen lanean, eta 53 urte ileapaintzaile moduan lan egin ondoren, Xabier Gorostiza elgoibartarra jubilatuta egin da. 50. hamarkadan ireki zuen ileapaindegia Xabierrek, eta beti San Bartolome kaleko 13. zenbakian izan du lokala. Badirudi Xabierrek geneetan idatzita zeukala bere lanbidea, izan ere, bere aita, anaia eta osabak ere ileapaintzaileak izan baitziren. Herriko gizon asko pasatu dira Xabierren eskuetatik, orain, gizonezkoentzako ileapaindegi bakarra geratzen da Elgoibarren. Jende askok, faltan botako du dudarik gabe Xabier ileapaindegia.

## [ NOTIZIA ]

### Elgoibartik Gasteizerako autobus zerbitzua kendu egin dute

Donostiatik Gasteizera joaten den autobusa dagoeneko, ez da Elgoibartik pasatzen. Eibar-Gasteiz autopistari esker, Donostiatik datorren autobusa Bergaran ateratzen da, ondorioz, elgoibartarrak Gasteizera joateko autobus zerbitzurik gabe geratu gara. Arabako hiriburura edota Debagoienara joateko, beraz, Eibartik hartu beharko dugu autobusa. Gauza bera gertatzen da Bilbora joateko. Lehen Elgoibartik Bilborako autobusak bazenuden, baina orain Eibartik ateratzen da. Donostiara joateko ere lehen baino autobus gutxiago dago Elgoibartik.

#### Sinadura bilketa

Soraluze eta Elgoibarren sinadurak biltzen hasi dira PESA autobus konpainiak



hartutako erabaki honen kontra. Beraien esanetan "garraio publikoa erabiltzeko mezuak zabaltzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina gero ez digute erraztasunik ipintzen".

## [ ZENBAKIA ]

# 9

Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak asteburu honetan emango dio hasiera Liga Txapelketari. Guztira 9 talde arituko dira aurten eskubaloian. Adin desberdinetako neska-mutil mordoak parte hartzen du urtero kirol honetan. Urteik urtera, indar handiagoa hartzen du eskubaloiak Elgoibarren.

## [ ARGAZKIA ]



"Gerria datorrela, gerria datorrela..." entzun zitekeen ostegun goizean Txankakua zubi parean suertatu ziren herriarren artean. Argazki hau ikusita halaxe dirudi, ezta? A ze ezustekoa! Espainiar armada maniobrak egiten ari da egunotan Euskadiko hainbat herritan eta gurera ere iritsi ziren. Eibartik Debara bidean zihoazela pasa ziren Elgoibartik goizeko 11:00ak inguruan. Gerrako hainbat kamioi eta automobiletatik atera eta Txankakua zubian bildu ziren soldadu mordoak amak eskuetan zituztela. Maniobretan inpresioa egiten badu, nolakoa izango ote da benetako gerra egoeran?

## Giro bikaina eta jende ugari Txankakua Merkatari Elkartean VI. Ferian



**T**xankakua Merkatari Elkarteko komertzio eta tabernak kalera atera ziren joan zen zapatuan. 6. urtez jarraian ospatu da Txankakua Feria eta antolatzaileen esanetan, aurten ere, herritarrek bikain erantzun dute: "jende mardoa gerturatu zen Plaza Handira eta Txankakuatik eskerrak eman nahi dizkiegu". Eguraldi bikaina egin zuen eta giro ezinhobea izan zen Plazan. Ume, gazte eta nagusiek bat eginik, festa giroan pasatu zuten goiza. Feriari amaiera emateko, eguerdiko 13:30ean 100 euroko 6 erosketa txeko zozketatu zituzten udaletxeko arkupeetan.

### Helburua herritarrengana gerturatzea

Txankakua Merkatari Elkarteko ardura-dunek esan digutenez, beraien nahia denetako produktuak beste modu batean eskaintzea da: "herritarrengana gerturatu eta azken batean, herriari bizitasuna ematea da gure helburua". Beraien ustez, merkataritzak bizia ematen die herriko kaleei: "kalitatea, gertutasuna eta erosotasuna eskaini nahi dizkiegu gure bezeroei eta bide horretan jarraituko dugu lanean. Merkataritzak bizitza ematen dio herriari eta denon artean zaintzen saiatuko gara".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Tertuliak programan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Izarrak herriko euskaltegi en eta Udalaren laguntzaz, *Tertuliak* programa jarri du martxan aurten ere, euskaldun berriak euskaldun zaharrek berbetan jarduteko helburuarekin. Urritik ekainera bitartean ordu bete edo bi orduko saioak izango dira. Izena emateko azken eguna urriak 11 da. Interesatuak 943741332 (AEK), 943742731 (Udal Euskaltegia) edo 943741626 (Elgoibarko Izarra) telefonoetara deitu dezakete.

### Haizea Emakume Taldearen urriko eskaintza

Haizea Emakume Taldeak ekintza desberdinak antolatu ditu urriko. Hilaren 3an yoga ikastaroa hasiko da. Interesatuak Olaizaga Kiroldegian (943744415) jaso dezakete informazioa. Hilaren 4an hasiko den Garapen Pertsonalari buruzko ikastaroan parte hartzeko, 943743206 telefonora deitu daiteke eta Sevillana eta Kubako dantzen ikastarorako 943700791 (Isabel) zenbakira deitu. Azkenik, urriaren 20an bideo forum emanaldia izango da Kultur Etxean gaueko 22:00etan.

### ISO 14.001 ziurtagiria BH Institutuarentzat

Elgoibar BH Institutuak Ingurumenkudeaketaren ISO 14.001 ziurtagiria jaso du. Automozio tailerretan eta laborategietan izan du eragina batez ere, bertan sortzen baitira hondakin arrisksuenak.

### Errosario kaleko jaiak

Urriaren 1etik 7ra bitartean ospatuko dira aurten Errosario kaleko jaiak. Afarirako izen ematea Gorostiza liburutegian, 20 eurotan. Jaien finantzazioan laguntzeko erriak jarri dituzte salgai Errosario kaleko estalezimenduetan.

## Partaidetza urria Daborroko Perretxiko Lehiaketan



10 taldek bakarrik hartu zuten parte Karakate Elkartek antolatutako XXXII. Perretxiko Lehiaketan. Antolatzaileek esan zuten, oso urte txarra izan da perretxikoentzat: "urte lehorra izan da, mendiak hutsik daude". Asier eta Marta Nuñezek osatutako bikotea izan zen irabazlea. Bigarren sailkatua Iban Rogel izan zen eta hirugarren postuan Iñaki Amesti eta Josu Perez sailkatu ziren. Bernabe Mujika saria Ignacio Mugerzari eman zioten. Domeka goiza euritsu esnatu zen gainera, eta Plazara gerturatu ziren ikusleak ere ez ziren asko izan.



Herritarren atsedenaren mesedetan, Parrokiako kanpaiak isilik mantenduko dira aurrerantzean 22:00etatik 08:00etara.

## Zer iruditzen zaizu Parrokiako kanpaiak gauzez isilik egotea?

**MARGA RODRIGUEZ**  
Sendagilea  
38 urte



“Jendeak ezin badu lorik egin ondo iruditzen zait gauzez kanpaiak isiltzea. Denok dauzkagu erlojuak etxean eta zein ordu den jakiteko ez dago kanpaien beharrik.”

**PEDRO MERINO**  
Jubilatua  
73 urte



“Berdin zait. Ni Plazatik urrun bizi naiz eta ez dut kanpairik entzuten, niri ez dit trabarik egiten. Parrokia inguruan biziko banintz beste kontu bat izango litzateke.”

**LARRAITZ LOPEZ**  
Ikaslea  
20 urte



“Gauzez ere jotzen zuten kanpaiak, ala? Nik ondo egiten dut lo, baina inguruko jendea irabiatu egiten badiot ondo iruditzen zait. Gauzez kanpaiak ez dira beharrezkoak.”

**JACKELINE EGUEZ**  
Etxeko laguntzailea  
32 urte



“Ondo. Ni Plazatik oso gertu bizi naiz, eta kanpai hotsarekin orduero esnatzen nintzen. Eskertzekoa da Parrokiak hartu duen erabakia. Askoz hobeto egiten dut lo.”

## [ BAI ala EZ? ]

Argalegiak dauden modeloak pasareletatik kanporatzearen alde zaude?

**BAI %86**

“Bai. Ez zaizkit hain gorputz argalak gustatzen eta ez da komeni gorputz hain argal eta askotan gaixoak, ederraren izenean salteza. Gorputz borobilak gustatzen zaizkit, normalagoak.”

**EZ %14**

“Ez. Nire ustez arazoa hezkuntzan dago eta, benetako neurriak hartu beharrean, horrelako neurri hutsak hartzeak ez du ezertarako balio.”

Datorren asterako... Bilbora edo Gasteizera joateko ez dago autobus zerbitzurik Elgoibartik. Elgoibarren daukagun garraio publiko zerbitzua egokia dela iruditzen al zaizu?

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA


**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozelai.com](http://www.talasozelai.com)



## AZTARNATEGIA ALDATXARREN HAITZULOAN

# LEHEN MENDARROARREN BILA

*Arkeologo talde batek Goi Paleolitiko aroko aztarnategi bat aurkitu du Mendaroko Aldatxarren haitzuloan eta indusketa lanetan ari dira. Andoni Saenz de Buruaga, Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko irakaslea, da horietako bat. Oraingoz duela 30.000-25.000 urte bitarteko aztarnak aurkitu dituzte, hau da, Cro-Magnon gizakia zibilizazioaren lehen pausoak ematen hasi zen garaikoak. Egun ezagutzen dugun mundu eta zibilizazioaren sustraiak errotu ziren aro garrantzitsu honetan: gizakiak eginiko lehen tresnak, artearen jaiotza, abeltzaintza eta nekazaritzaren sorrera eta lehen hiriak agertu ziren, besteak beste. Lehen mendaroarrak (eta euskaldunak) nolakoak ziren eta nola bizi ziren argitzeko lagunduko dute Aldatxarren agertzen diren aztarnak.*



### ANDONI SAENZ DE BURUAGA

EHU-KO HISTORIAURRE IRAKASLEA

## «Goi Paleolitiko Aroan bizi ziren Cro-Magnon gizakien aztarnak aurkitu ditugu Aldatxarren haitzuloan»

**Historiaurreko giza aztarnak azaldu dira Mendaroko haitzulo batean, ezta?**

Bai, halaxe da. Joan zen urtetik hona Mendaroko Aldatxarren haitzuloan azaldu den aztarnategi batean ari gara indusketa arkeologikoa eginez. Leizezulo hau Santikruz mendia mendebaldeko hegalean kokatuta dago.

**Nork aurkitu zuen aztarnategia?**

Juan Mari Arruabarrena eta Mikel Sasetari zor diegu aurkikuntza. Beraien da meritua. Azkoitiko Munibe Taldeko kideak dira biak eta 2001. urtean eman zuten ezagutzera aztarnategia. Guk, Debabarrenaren inguruko historiaurrearen ikerketa lanaren jarraipen gisa ulertzen dugu Mendarokoa. 2002an Astigarribiako (Mutriku) Zerratu haitzuloan hasi genituen in-

dusketa lanen jarraipena, hain zuzen ere.

**Zenbat lagun ari zarete indusketa lanetan?**

Iparraldeko eta hegoaldeko arkeologo euskaldunak, frantziarrak eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Historiaurreko ikasleak ari gara indusketan parte hartzen, elkarlanean.

**Zer aurkitu duzue?**

Oraingoz, Goi Paleolitiko aroko aztarnak aurkitu ditugu, alegia, duela 30.000 eta 25.000 urte bitartean bizi izan ziren gizaki talde bat baino gehiagoren gorpuzkiak. Aurkitutako giza hezurak Cro-Magnon gizakiarenak dira. Aurkitutako materialei dagokionez, beriz, harrian tailatutako erremintak eta ehizatutako animalien hezurak (bisontek, sarrion alpetarrak eta oreinen aztarnak, batez ere). Hauek guztiak etxe modura

erabiltzen zuten leize-zuloan agertu dira. Sua egiteko erabiltzen zituzten guneetan agertzen dira aztarnak gehienak.

**Zenbat denborarako lana daukazuela aurreikusten duzu?**

2006. urteko ekinaldian lau metroko sakonerara iristea lortu dugu, eta oraindik ez gara ondoraino, harriraino, iritsi. Hau dela-eta, datorren urtean ere indusketarekin jarraitu beharko dugu. Berau egiteko abuztua da sasoirik aproposena.

**Zer egiten da bertan aurkitzen dituzuen aztarnekin?**

Aurkitzen ditugun material guztiak behar bezala sailkatu, izendatu eta inbentarioa egiten dugu, ondoren aztertuak eta ikertuak izan daitezten. Eta noski! Hau dena Gipuzkoako Kultura eta Historiako ondare izatera pasako da.





## CRO-MAGNON GIZAKIA

Cro-Magnon deitzen zaio gaur egungo gizakiaren arrazari; Goi-Paleolitikoan Europako mendebaldean eta erdialdean bizi izan zena. Altuera handikoak ziren eta gorpuzkera sendokoak, gaur egungo gizakiaren antzekoak (Homo sapiens-sapiens). Gizaki horren lehenbiziko aztarnak Cro-Magnon haitzuloan aurkitu ziren Perigord-en (Frantzia), Les Eyzies ondoan. Izenak osagai bi ditu: cro (okzitaniaraz, leizea) eta Magnon (izena).



## PALEOLITIKO AROA EUSKAL HERRIAN

Goi Paleolitiko Aroko K.a. (38.000 K.a. 9.000. urte bitartean) aztarnak ugari eta aberatsak dira Euskal Herrian. Cro-Magnon gizakiaren hezur zein tresnen aztarna ugari aurkitu dira; gainera, hormetako pinturak, irudiak eta arte adierazpenak ere aurkitu dira; aipagarrienak Isturitze, Ekain, Altxerri, Santimamiñe eta Aizpitarteko haitzuloak dira. Dena den, Goi Paleolitiko Aroko haitzulo gehienak kostaldean eta behe lurretan daude; Itsaso-maila 120 metro beherago zegoen eta garai hartan klima oso hotza zen; nomadak izan arren, ziurrenik, leku garaiak ez zirela egokiak izango gizakia bizitzeko. Cro-Magnon gizakia kostalde inguruan denbora gehiago bizi zenez arrantzak garrantzi handia izan zuen, eta hori adierazten dute aurkitutako arrantzarako tresnen aztarnak: arpoiak eta hezurzko amuak.

elkarrizketa...

## Eider Goibururu

UDAKO OPORRAK HARTU BAINO APURTXXO BAT LEHENAGO HASI ZEN LANEAN EIDER GOIBURU BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUAN. GAZTEEI ZUZENDUTAKO ZERBITZUA DA HAU, GAZTEEK SEXUARI BURUZ DITUZTEN KEZKA ETA GALDERAK ARGITZEN SAIAZTEN DA. ASTELEHENETAN, ARRATSALDEKO 17:00ETATIK 20:00ETARA EGOTEN DA KULTUR ETXeko AZKEN SOLAIRUAN. BESTELA, E-MAILEZ ERE BIDALI DAITEZKE GALDERAK: [biluzikzerbitzua@yahoo.es](mailto:biluzikzerbitzua@yahoo.es).

## “Antisorgailuen erabilerarekin erabat kontzientziatuta daude gazteak”

### Aurkeztuiguzu zure burua, Eider...

25 urteko neska oriotarra naiz. Psikologian lizentziatua eta sexu hezitzailea. Horrez gain, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko masterra egiten ari naiz.

### Zergatik sexologa?

Uf, galdera zaila! Nik beti izan dut argi pertsonekin lan egitea nahi nuela, pertsonen arteko harremanak aztertuz. Bestalde, gaia oso erakargarria da, sexua, sexualitatea... intimoa da baina era berean, gure bizitza baldintzatzen du, gure barruan eta kanpoan dago eta hala eta guztiz ere, gure gizartean tabua izaten jarraitzen du. Debekatutakoak erakarpen bikoitza du.

### Sexuari dagokionean, zein dira gazteen kezka nagusiak?

Ligatzea, besteen gustukoa izatea, sexu harremanetan bikoteari plazerra nola eman jakitea... Denetarik.

### Birjinitatea galtzeari garrantzia handia ematen al zaio?

Gaur egun gure gizartean oraindik birjinitatearen mitoak dirau eta gazteentzat gai hau oso garrantzitsua da. Ez nuke esango traba bat denik baina bai kezka bat: noiz? non? nola? zeinek? nola

jakin momentua iritsi den? nola jakin bera den ala ez pertsona egokiena? Fantasia asko izaten dituzte honen gainean, guztiok eduki ditugun moduan, eta fantasia guztiak bezala, ezinezkoa da egi bihurtzea. Kasu batzutan dezepzioak egoten dira. Hala ere, ez dut uste orokortu daitekeenik. Bakoitzaren bizipenak desberdinak dira, batzuk hobek eta besteak okerragoak.

**“Ligatzea eta besteen gustukoa izatea dira gazteen kezka nagusiak”**

### Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?

Sexua eta maitasuna; bai batera eta baita banatuta ere.

### Gazteek sexologiari buruzko informazio nahikoa daukate?

Bai, gertatzen dena da, duten informazio osoa ez dela baliozkoa. Informa-

zio ona badute baina horrekin batera, mito mordoa dituzte, adibidez, koito etena edo “marcha atrás” antisorgailu ona dela. Beraz, gaur egungo arazoa ez da informazio falta, baizik eta duten informazio hori beraien buruan ordenatzea eta jakitea zein den baliozkoa eta zein ez.

### Antisorgailuen erabilerarekin kontzientziatuta al daude?

Erabat, oso kontzientziatuta daude. Teorikoki, oso ondo ezagutzen dituzte preserbatiboa ez erabiltzearen arriskuak eta gazte gehienek, preserbatiboa ez erabiltzea zer iruditzen zaien galdetzen zaienean, hori egiten dutenak zoratuta daudela diote. Gertatzen dena da, gehienetan, sexu harremanak ez dituztela planifikatzen, bat-batean eta espero gabe gertatzen dira, beraz, momentuan ez daukate preserbatiborik. Berotasunarekin, gogoarekin, oso zaila da harremana gelditzea eta gainera, autodefentsako ideia guztiak ateratzen dira: “ba, behin bakarrik egiteagatik ez da ezer gertatuko, lehenengo aldian ezin zara haurdun gelditu...”.

### Zein adinetan hasten dira gazteak sexu harremanetan?

Oso zaila da esatea. Batzuk 16rekin eta beste batzuk 23rekin. Pertsona ba-

# BARREN

koitzak bere momentua du. Ez dut uste adina orokortu daitekeenik.

## **Ba al daukate gurasoekin sexuaz hitz egiteko konfiantzarik?**

Egia esanda, kasu gehienetan lotsa handia ematen die gurasoekin gai honetaz hitz egitea, baina argi dute, arazoren bat edukiz gero, gurasoengana joko luketela, gurasoak hor daudela laguntzeko eta hau jakitea oso garrantzitsua da.

## **Zer moduz Biluzik Sexologia Zerbitzuan?**

Biluzik-en oso gustura nabil, baina uda aldean hasi nintzen lanean, ez da jende gehiegi gerturatu. Orain, egunerokotasunean sartzen garenean ea jendea animatzen den! Gainera, aurtengo ikasturterako proiektu berri bat jarri nahi dugu martxan: hemen, Biluzik-en sexualitateari buruzko liburutegi txiki bat sortzea da gure nahia. Liburuak etxera eraman eta etxean irakurtzeko aukera eskainiko diegu gazteei. Aukera hau edukita guregana gerturatuko direla espero dut.

**“Gehienetan lotsa ematen die gurasoekin sexuari buruz berba egiteak”**

## **Zein dira egiten dizkizuten galdera ohikoenak?**

Lehen esan dudan bezala, bulegora ez da gazte gehiegi gerturaten, kontsulta gehienak, e-mail bidezkoak izaten dira. E-maila gazteentzako oso bide ona da, anonimoa baita eta edozein lekutan eta edozein momentutan egin dezakete kontsulta. Egiten dituzten galderak gai desberdinei buruzkoak izaten dira: lehen aldiari buruzkoak, mina ematen duen ala ez, antisorgailuei buruzkoak, hurrengo eguneko pastilari buruzkoak, nahigabeko haurdunaldia-ri buruzkoak... Galderak oso pertsonalak dira, bakoitzari gai batzuk interesatzen zaizkio.





## Euskal Jaiaren mendeurrena

2007ko uztailean, Elgoibarren Euskal Jaia ospatu zeneko mendeurrena izango da. 1907ko uztailean ekintza desberdinak antolatu ziren gure herrian euskal kultura bultzatzeko asmoz. Aste hura gogoratu nahirik, Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeak zenbait ekintza berezi antolatu nahi dituzte datorren urterako. Udalak, gai honi buruzko ekarpenak egin nahi dituzten herritarrei dei egiten die, denon artean Euskal Jaia prestatzeko. 943 744366 edo [euskara@elgoibar.org](mailto:euskara@elgoibar.org).

## Marrazketa artistiko ikastaroa

Egur Arte Tailerrak marrazketa artistiko ikastaroa antolatu du. Umiaren 2tik 26ra bitartean eskainiko da, guztira 30 ordu. Interestatuek Egur Arte Tailerrak Aita Agirre Plazan daukan lokalean eman dezakete izena, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean.

## Antzerki ikastaroa

Taupada Antzerki Taldeak gazteentzako antzerki ikastaroa antolatu du urritik abendura bitartean. Interestatuek 653013813 edo 656 416677 telefonoetara deitu dezakete.

## Aterkings taldearen disko berria

Aterkings musika taldeak disko berria kaleratuko du udazken honetan. "Aterkings vs. Aterqueens" izena ipini diote diskoari eta beheko argazkian ikusten den bezala, New York Dolls talde amerikarrari keinu bat egiten diote. Euskal Herria eta Estatu mailako kontzertuez gain, euren nahia Holanda aldera joatea dela esan digu Alberto Gonzalez elgoibartarrak.



## "RUBEN AROZENA 1966-2005" ERAKUSKETA

# Ruben Arozenaren lanak Kultur Etxean

**E**uskal Herriko Unibertsitako irakasleek Elgoibarko Udalaren laguntzaz antolatuta, gaur arratsaldean (19:00) inauguratuko da Ruben Arozena artista elgoibartarraren erakusketa, eta urriaren 15era arte egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Toki arazoak direla-eta, ezin izango da Rubenen obra guztia ikusi; beraz, azken urteetan artista elgoibartarrak egindako lanen aukeraketa bat egin da. Erakusketa-aren antolatzaileek adierazi dutenez, "lan horien bitartez, Rubenen lanetan hain ezagunak diren ironia, ikuspuntu eszenografikoa, idatzitako testuaren eta irudiaren arteko gainjartzea, serializazioa, errepikapena, zatikatzea, eta sekuentzialitatea ikusi ahal izango dira. Tamaina eta ezaugarri askotariko lanak egongo dira ikusgai". Astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.



## Ruben Arozena

Arte Ederretan doktore eta 1998tik Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretako irakasle zen. Bere ibilbide luzean zehar, ilustrazioak egin zituen irakaskuntza arloko hamarren bat argitalpenentzat. Komikigintzan Ipurbeltz, Habe edo Bronx komiki italiarra moduko aldizkarietan argitaratu zituen lanei esker egin zen ezagun.

## San Migeleko jaiak ospatuko dira asteburu honetan



Gaur hasi dira San Migel auzoko jaiak, eta igandera arte festa giroan izango dira Aiasiarrak. Gaur gauean, auzotarren afariaren ostean, disko festa eta streptesea izango dira. Bihar, Euskal Herriko arraza libreko artzai txakur txapelketako finala izango da ekitaldi

aipagarriena. Gau partean, Haritz Dantza Taldearen emanaldia eta Luhartz taldearekin erromeria izango dira, eta goizaldeko 1:00etan Bolo Txapelketa. Domekan, urriak 1, jaietara emateko, Idi Demak izango dira arratsaldeko 17:00etan.

## [ GOMENDIOA ]

### Musikoterapia

**D**epresioa, antsietatea, Alzheimer gaitza, autismoa... ez da harritzekoa era honetako gaitzen erremedioaren bila mediku batetik bestera noraezean ibiltzeaz asperturik, askok eta askok medikuntza tradizionaletik kanpoko tratamendu alternatibotan sendabidea edo minak arintzeko bidea bilatzea. Musikoterapia dugu aukera ez ofizial horietako bat. Musikan eta terapian oinarritua, baliagarri agertu da aipaturiko gaixotasunak eta antzekoak dituztenentzat.

Historian zehar, zibilizazio askok aipatu izan dute musikak pertsonengan duen eragina, eta are gehiago, danbor

hotsak erabili izan dituzte talde terapiak egiteko. Baina soinua eragin terapeutikoarekin erabiltzea ez da oraintsu arte nagusitu eta gaur egun, pauta jakinak jarraitzen ditu, adituen esanetan erritmo bitalak aurkitu eta taldean sormenezko interakzioak egiteko bidea ematen baitu (terapeuta askorentzat soinu-tresna indartsuena kantua da). Musikak balore unibertsal batzuk ditu, pertsona guztiei eragiten dietenak eta erritmoak, armoniak, melodiak eta tonuak definituak. Tonu altuak tentsioa sorrarazten du; armonia minorrak tristura sortzen du eta erritmo motelak moteldu egiten du jarduera fisiologikoa.

#### Eraginak:

- Fisiologia: aldatetak eragiten ditu bihotzaren eta arnasaren erritmoan eta baita giharretako tentsioan ere.
- Komunikazioa: arazoak eta kezak adieraztera bultzatzen du.
- Afektibitatea: garapen emozional eta afektiborako lagungarri da.
- Sentsibilitatea: entzumen eta ukimena areagotzen ditu.
- Mugimendua: mugimendu-koordinazioa hobetu egiten du.
- Heziketan: ikasketa prozesuan lagungarri da eta garapen pertsonala eta ikasketako ezgaitasunak gainditzen laguntzen du.

## [ OSASUN GIDA ]



### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

**Mendaro**

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrasta

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: [irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - weba: [www.irale.com](http://www.irale.com)

### FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 behea

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

## ARETO FUTBOLA (2006-2007 DENBORALDIA)

### Eibar eta Elgoibarko areto futbol klubak batu egin dira

**B**errituta eta sendotuta hasiko dute areto futboleko taldeek liga txapelketa asteberu honetan. Elgoibarko San Pedro F.S. eta Eibarko C.D. Eibarsala klubek indarrak batzea erabaki, eta bat egin dute. Sortu den talde berriaren izena, beriz, luze xamarra: C.D. Debarrena Elgoibar Eibar areto futbol kluba. Lau talderekin hasiko du, momentuz, ibilbide berria klubak. Talde nagusia, Kenci, Euskal Ligan arituko da, iazko denboraldian Nazional B mailatik jaitsi ostean. Jose Luis Gonzalez izango da hauen entrenatzailea. Gipuzkoako Bigarren mailan ere Kenci izeneko talde bat lehiatuko da eta azkenik, jubenil mailan bi talde egongo dira: Relojes Mondaine taldean Eibar eta Ermuko jokalariaiari batuko dira eta Elgoibar taldean, beriz, Elgoibarko jokalariaiari. Elgoibarko jokalariaiari dauden hiru taldeak aurkezten dizkizuegu orriotan.



#### **KENCI (Euskal Liga)**

**Tente** (ezkerretik hasita): Jon Mekolalde, Jose Luis Gonzalez (entrenatzailea), Miguel Rodriguez, Alex De La Vega, Aitor Gabilondo, Jose Luis Toledano eta Aitor Berdonces.

**Makurtuta:** Ekaitz Insausti, Oier Lavado, Mikel Leon, Julen Merino eta Dani Torres.



#### **KENCI (2. maila Gipuzkoa)**

**Tente** (ezkerretik hasita): Fernando Viciosa, Ander Garrido, David Bilbatua, Asier Rioja, Enrique Alvarez, Maxi Acevedo, Ivan Fernandez, Imanol Perez, Juan Laso, Raul Cid eta Jose Ramon Iriarte (entrenatzailea).

**Makurtuta** Iker Pascual, David Araujo, Bernardo Pavo, Iker Rodriguez, Isaac Vaquero, Javi Rodriguez eta Gonzi Outumuro.

**Argazkian falta dira:** Javier Moran eta Diego Portelo.

#### **ELGOIBAR (Jubenilak)**

**Tente** (ezkerretik hasita): Dani Alonso, Iker Oñederra, Ioseba Quintas, Inigo Agirre, Isaac Bilbatua, Ion Rodriguez, Alberto Cardaba eta Ivan Fernandez (entrenatzailea).

**Makurtuta** Jordan Galindo, Iker Galindo, Borja Mallo, Jonathan Galindo, Josu Calvo eta Ander Tena.

**Argazkian falta dira:** Ion Perez.





## MENDIA

### Eguraldiak ez zuen lagundu Morkaikok Bachimalara egin zuen azken itteeran



**M**orkaiko Mendizale Elkartearekin Bachimala inguruetara joan ziren 30 lagunek ez zuten eguraldiarekin zorte handirik izan joan zen asteburuan. Etenik gabeko euriak eta txingorak planak aldatzera behartu zituen antolatzaileak, eta kanpoan baino aterpean denbora gehiago pasa zutela adierazi digute. Etxera itzultzeko zorian izan zirela ere aipatu digute. Azkene-

an, Biadoseko aterpetxera ailegatu ziren, behintzat, eta handik GR11ko zati bat eginez, Parzan herriraino iritsi ziren, mela-mela eginda bada ere. Morkaikoren hurrengo itteeran ere bustitzeko arriskua handia da, oraingoan, barutiak bustitzeko arriskua, ordea, Izkiko parke naturalean (Araba) ibili ostean arandegi batean bazkalduz amaituko baita txangoa. Urriaren 21ean izango da.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Gernika 0 - Huandi 0 (3. maila)  
 Elgoibar 0 - Zumaia 0 (1. erreg.)  
 Elgoibar 1 - A, Ondarroa 0 (Jub.)  
 Eibartarra 3 - Elgoibar 2 (Kad.)  
 Elgoibar 0 - Lengokoak 3 (Inf. A)  
 Añorga 4 - Elgoibar 3 (Inf. B)  
 Elgoibar 1 - Eibartarra 4 (Neskak)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 30

10:00 Elgoibar - Touring (Inf. B)  
 12:00 Elgoibar - Soraluze (Kad.)  
 16:30 Elgoibar - Segura (1. erreg.)

### ESKUBALOA Kiroldegian

Zapata, 30

10:00 Aterpe - Bergara (Inf. nesk.)  
 11:30 Lajantzi - Lagunak (Senior. mut.)  
 16:00 Tecnomeca - Bidasoa (Kad. Mut.)  
 17:30 Pneumax - Bidasoa (Jub. Mut.)  
 19:00 Tecnifuelle - Dam-Lea (Senior mut 2. N)



## Euskal Herriko Artzai Txakur onenak Aistian

Araza Libreko Euskal Herriko Artzai Txakur Txapelketaren finala jokatu da beste behingoz, Aistian (San Migel) zapatu honetan, San Migel jaien egitarau barruan. Bertan, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako txapeldunak elkartuko dira, Euskal Herriko artzai eta txakurrik onenak zein diren erabakitzeko. Matxinbentako Pello Seguroa eta Arxai txaku-

rra dira Gipuzkoako txapeldunak, Andajonako Carlos Pinedo eta Xuster Arabakoak eta Amaiurgo Felix Irigoien eta Satur, beriz, Nafarroako txapeldunak. Jose Antonio Arrillaga auzotarrak ere hartuko du parte Lagun txakurraekin. Arrillaga 2005eko Euskal Herriko txapelduna da. Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

**PINTURAK**  
 PEDRO PEREZ BERISTAIN  
 Xixilon, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89  
 KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

**Bukatu S. Coop.**  
 Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR  
**MEKANIZATUEN TAILERRA**

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Kanpoaldera ematen duen duplex-a salgai Urasandin. Berritua. 3 logela, 2 komun eta ganbara irekia. **653 715141**

▶ Etxea salgai Urasandin. 4 logela eta trasteroa. **636199732 (19:00-21:00)**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 90m<sup>2</sup>. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. **680707639**

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m<sup>2</sup>. Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko moduan. Argazkiak: [www.esnips.com/web/etxepolita](http://www.esnips.com/web/etxepolita) **660884060**

▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. **677 77 29 20**

## ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.  
3 logela, sukaldia,  
komuna eta egongela.  
Dena kanpoaldera.  
Bizitzera sartzeko prest.  
**943 03 38 44**  
**686 62 21 92**

▶ Etxea salgai Mendaro erdialdean. 3 gela, 2 komun, sukaldia, jangela eta egongela. Garaje itxia, ganbara, berogailu zentrala, erdi jantzia. **659801032**

### ALOKAIRUA

▶ Etxea alokatzen da Sigman. **608671416**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **620049420**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron. **687209139**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **669223527**

▶ Negozioa hemen dudalako, etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron. **697897899**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren. **690296857**

▶ Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **626914904**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **666032715**

▶ Etxebizitza txikia alokatzen da erdialdean. **660 042 159**

▶ Logela bat alokatzen dut Elgoibarren. **943741881**

▶ Ikasleentzako pisua alokatzen dut Gasteizen, erdialdean. **689789743**

## [ AUTOAK ]

▶ Opel Corsa autoa salgai. Oso egoera onean. 900 euro. (Josu) **608394305/943743610**

▶ Renault Traffic SS-X furgoneta salgai. 220.000km. Sukaldia, dutxa, berogailua eta literak. **679 60 92 83 (21:30-22:30)**

▶ Ford Escort Atlanta turbo diesel autoa salgai. 90 zaldi, egoera onean. Aukera bikaina. **660363815/943740786**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. Marraduna. **615787857**

▶ Lokala hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdialdean. **627784494**

▶ Garajea alokatzen da Trenbide kalean. **943 74 17 14**

▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. **943748853**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. **660511781 (Elena)**

• Emakumea orduka nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. **647100572**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943033809/696136780**

• Emakumea garbiketa lanetarako, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. **646235195/636362251**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **943530803**

• Emakumea nagusiak edo gaixok zaintzeko prest. Egunez edo gabez. Orduka ere. Esperientziaduna. **943172896 (Merxe)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **639020180**

• Emakumea lanerako prest. **660800954**

• Mutil gaztea arratsalde eta asteburuetan lanerako prest. **627104915**

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile, kamarero... **692703069 (Luis)**

• Pertsona eskaintzen da garbiketa eta umeak edo nagusiak zaintzeko. **626 914904 (Rosa)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **649 36 81 37**

• Ingeleseko klase partikularak ematen ditut. **943741091**

• Ingeles partikularak ematen ditut. Talde txikiak. **679113446**

• Emakumea lanerako prest: umeak edo nagusiak zaindu (geriatria erizaintzako titulua), garbiketa, kutxazain... **696 13 67 80**

• Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **639 88 20 04**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest: elkarateak, tabernak, lokalak... **667 709 439**

• Emakumea etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta informea ditut. **620674034/943174134**

• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako. **699 609 190**

• LH eta DBHko klase partikularak ematen dira. **943 53 10 54**

• Emakumea edozein lan egiteko prest. **680304982 (Candelaria Fernandez)**

### ESKAINITZA

• Tituludun erizainak behar dira Elgoibarrerako. **609318192/943466150**

• Ume batentzat frantses irakaslea behar da. **647707081**

• Kamareroa behar da. **943 12 12 62**

• Euskara irakaslea behar dut klase partikularak jasotzeko. **696 96 40 69**

• DBH1. mailako partikularak emateko pertsona bat behar dut. **626 23 75 70 (Ana)**

• Goi edo Erdi Mailako Ingeniari Elektrikoa behar da. Siemens Step 7 Automaten programazioan eta Visual Basic. Ingeles maila altua. 28-40 urte. **943121608 (Jose Ramon)**

• Neska euskalduna behar da tabernan barran lan egiteko. Esperientziaduna. **670654921**

## ABISUAK

• "Rifen sarea"ren jabearekin kontaktuan jarri nahiko genuke. **676402851 (Manterola)**

• Europa batzuk topatu ditut portalean. Levisak, ume jantziak, blusak... berri-berriak. Falta zaiionari Udaltzaingotik pasa dadila. **943 756059**

• 1956an jaiotako kinto bazkaria Mendaron. Urriak 1, Landa jatatxean. Izena emateko azken eguna irailak 25. Kutxako 2101 0054 13 0125574137 zenbakian 60 euro sartu. **943 756059**

• Udako trajea galdu nuen etxe batetik besterako trasladdoa egite-rakoan. Errosario kalean. **695711836/943740171**

• Txapak irekitzeko aparatua galdu nuen San Bartolome jaietan. Balio sentimental handia dauka. 200 euro ordainduko dizkiot aurkitu duenari. **669682990**

• Umearen urrezko pulsera galdu nuen irailaren 3an usua inguruan. Sare izena du. **615707138**

• Katu txiki bat oparitzen da. Mantisoa, lasaia eta maitagarria. **661225149**

## [ ZORIONAK ]



▶ Zorionak **Miguel** gaur 15 urte egin dituzulako. Gurasoen eta anai-arreben partez.



▶ Zorionak **Leire** gaur 2 urte bete dituzulako. Familiakoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Aitor** joan zen igandean 7 urte egin zenituelako. Zorionak mutil haundi!



▶ Ongi-etorri **Iratxel** irailaren 12an etorri zinen gurengana. Gurasoen partez.



▶ Zorionak **Yuritz** asteartean 9 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Guraso eta aiton-amonen partez.




▶ Zorionak **ama** urteak bete dituzulako. Muxu asko eta egun zorionsua pasal! Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Asier** urriaren 5ean 20 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki Maddi eta Amaiaen partez.



▶ Urtebetetzeetako trenea 7. aldiz iritsi zaizu. Muxu eder banarekin zoriontzan zaitugu. Izan dezazula zeu zaren bezalako urte polita.



▶ Zorionak **Julen** irailaren 27an 6 urte potolo bete zenituelako. Etxekoan eta bereziki, Amaia eta Ikerren partez.



▶ Zorionak **Ander** bihar 5 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Nerearen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Enara** atzo 3 urte egin zenituelako. Gurasoen eta familiakoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Maddi** Ondo-ondo pasa zure urtebetetze eguna eta muxu asko lkastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **bikote!** Bihar ezkontza eta etzidamu Vietnamera! Ondo ibili eta oparixoa ekarri. Joana, Asier, Ainitze eta Amaiaen partez.

▶ Zorionak aitaxo **Javi** irailaren 27an zure eguna izan zelako. Prest al zaude Behobia irabazteko? Muxu asko familiakoan eta bereziki, Mikel eta Oihaneren partez.

▶ Zorionak **ito Irigo!** Ondo pasa zure egunean. Muxu pilo bat familiakoan eta bereziki, Mikel eta Oihaneren partez.



### LEHIAKETAK BALIOEN SUSTAPENA

Obra Social "La Caixa"ren eskutik, "Jóvenes. Mucho que decir" ekimenen lehiaketa. 12 y 18urte bitarteko gazteak, taldeka. Proiektuen helburua balioen sustapena izango da, komunitate-lanaren eta herritarren (bereziki ahulenen) bizi baldintzak hobetzearen bitartez. Epea: Urriak 31

### ARGAZKIA

AFI Irungo Argazkilari Elkarte. XVII. "Irun Hiria" Argazki Lehiaketa. Parte-hartze bakoitzak gehienez ere 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Bi gai: Librea eta Irun. Epea: Urriaren 20a

### BEKAK GARRAIOAK

Eusko Jaurlaritza. 2006-2007 ikasturteko garraio gastuak ordaintzeko laguntzak ikasle ezgaituentzat. Epea: Urriak 15

### ESTATU BATUETARA

Fulbright Batzordea. Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate edo fakultateetan gaztelania irakasteko eta, aldi berean, bizpahiru irakasgai ikasteko bekak. Filologia hispanikoko edo ingeleseko lizentziatu izatea; Ingeles-maila ona. Epea: Azaroaren 10a

### EMAKUMEENTZAT

Glamour Aldizkaria. Graduondoko Ikasketak Espainian egiteko Glamour Bekak. Emakumezkoa izatea, lizentziatuak edo goi-mailako tituludunak eta 1976-05-30a baino beranduago jaiotakoa izatea. Epea: Urriaren 15a

### LANA NEKAZARITZA

Zizurkilgo Udala. Nekazaritza teknikari plaza bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Urriaren 04a

### MUSIKA

Irungo Udala. Pianoko irakasle laguntzaile bat kontserbatoriorako eta musika eskolarako. Piano Irakaslearen titulua, 1966 planekoa edo baliokidea izatea. Epea: Urriak 9

### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: [elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)  
943 741 461

**5** Asteartetik ostiralera 16:00-19:00



## [ OKINDEGIA ]



1 igandea FOTERO



## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

- 29 Ibañez
- 30 Bidasolo
- 1 Bidasolo
- 2 Etxeberria (Santa Ana)
- 3 Fernandez
- 4 Yudego
- 5 Zabaleta
- 6 Etxeberria (Errosario)

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBAÑEZ**

Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**

Herriko enparantza 4,  
Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**

Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

## AIASTIA (SAN MIGEL)

**Irailak 29 (barixakua)**

- 11:00 Meza nagusia
- Ondoren, Ziarda eta Mañu bertsolariak
- 13:00 Auzoko bikoteen arteko XXIII. Pilota Txapelketaren finalak. Gardoki Taldeak alaituta.
- 21:00 Auzotarren afaria
- Ondoren, Gardokirekin erromeria
- 01:00 Disko Festa
- Ondoren, Striptease-a

**Irailak 30 (zapatua)**

- 17:00 Artzai Txakur Txapelketa
- Euskal Herriko Arraza Libreko Finala
- 22:30 Haritz Euskal Dantzari Taldearen erakustaldia
- Ondoren, Erromeria Luhartz Taldearekin
- 01:00 Bolo Txapelketa

**Urriak 1 (domekia)**

- 11:30 Meza
- Ondoren, Balzola Anaiak trikitilariak
- 17:00 Idi-Demak. Oliden (orio); Etxabe (Aizarnazabal) eta Epiola (Oikina)

## ERROSARIO KALEKO JAIAK

**Urriak 1 (domekia)**

- 18:00 Errosarioa eta jauna agerian jartzea parrokiari
- Urriak 4 (eguztina)**
- 17:30 Txokolatada bikaina
- Baltasar Elkartearen aurrean
- 18:30 Patxin eta Potxin pailazoak
- Urriak 5 (eguna)**
- 17:30 Sokamuturra
- 19:00 Kalejira Mausitxa eta Udaleko buruhandiek
- Ondoren, izugarizko luntxa
- Urriak 6 (barixakua)**
- 17:30 Sokamuturra
- Ondoren, kalejira alaia Musika Eskolako trikitilariak eskeinita
- 21:15 Errosario kalekoen afaria
- Kultur Etxeko sotoan (\*Tiketak Gorostizan: 20 euro)
- Urriak 7 (zapatua)**
- 8:00 Kalean hildakoen aldeko meza Santa Klaran
- 11:30 Esku pilota partiduak
- Elgoibarko gazteen artean
- 12:00 Esku Pilota partiduak
- Lagunak eta Iparraldeko pilotarien artean
- 19:00 Kalean hildakoen aldeko meza parrokiari
- Berehala, Errosariko Ama Birjinari Otoitza eta Salbea.

# 10/10/84

Lan Taldeak, **urriaren 3an** Altsasun ospatuko den **elkartasun jaira** gogoratzeko zailuztegu eta bestetik eskerrak eman nahi dizkizue joan den ostiralean, irailaren 22an, Herriko Antzokian antolatutako hitzaldira etorri zineten guztioi eta bertan batutako diru lagunzagat, k.

ESKERRIK ASKO!

Aldi berean, saio honetan garatu ziren ikuspegien kalitate eta elkarren osagaritasuna nabarmendu nahi ditugu.

eskubide zibil eta politikoaren alde  
**elkartasun jaia**



**URRIAK 8, IGANDEA**  
Sanpedruko zelaitan  
**ALTSASU-URDIAN**

Autobusean izen ematea ohiko lekuan

**GUZTIEN LAGUNTZA BEHAR DUGU**  
Euskadiko Kutxa: 30350149401490027825

## [ 29 BARIXAKUA ]

**17:30 "KOLOREEN ZIRKOA"**

**ANTZERKIA**

Taldea: Berbaroko Antzerki Taldea  
Kiribilka programaren barruan  
Herriko Antzokian

**19:00 "RUBEN AROZENA 1966-2005" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**

Kultur Etxeko erakusketa gelan

**22:30 HITZALDIA, BIDEO**

**EMANALDIA ETA EZTABAIDA**

Gaia: Zapatisten beste kanpainaren aurkako eraso. Gaztetxean

## [ 30 ZAPATUA ]

**11:00 UDAZKEN FESTA**

Plaza Handian.

## [ 1 DOMEKIA ]

**9:30 DEBABARRENA OINEZ**

Martxa herrikoia

Irteera: IMH aurrean

## [ 2 ASTELEHENA ]

**18:00 MARGO ARTISTIKO IKASTAROA**

Izena emateko: Plaza Txikian (erdiko atea, 2. pisua)

Antolatzailea: Egur arte tailerra

## [ 3 MARTITZENA ]

**15:00 ESKUZ TALDEAREN**

**IKASTAROA**

Altzariak zaharberitzea eta egur gaineo margoa

Martitzen eta eguenetan

Izena ematea: 943 74 08 01 (Mertxe)

Antolatzailea: Eskuz

**16:30 YOGA IKASTAROA**

Kiroldegian

Antolatzailea: Haizea E. T.

Infor. eta izen ematea: 943 74 44 15

## [ 4 EGUAZTENA ]

**16:30 GARAPEN PERTSONALA**

**IKASTAROA**

Pedro Muguruza eskolan

Antolatzailea: Haizea E. T.

Infor.: 943 74 32 06 (Pitxintxu)

## [ 6 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**

2-6 urteko haurrentzat eta hauen gurasoentzat

Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

**22:15 ANTZERKIA**

Antzezlan: "Nasdrovia Chejov"

Taldea: Vaiven Produzioak

Herriko Antzokian

# ZINE

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

«Verano en Berlin» (Z.K.)

29, barixakua: 22:15

«Piratas del Caribe»

30, zapatua: 19:30-22:15

1, domekia: 16:30-19:30-22:15

2, astelehena: 21:30

**EIBAR, UNZAGA**

«Kutsidazu bidea, Ixabel»

29, barixakua: 19:30

30, zapatua: 17:00-19:30-22:15

1, domekia: 17:00-19:30-22:15

2, astelehena: 19:30-22:15

3, martitzena: 19:30-22:15

4, eguaztana: 19:30-22:15

**EIBAR, RIALTO**

«United 93»

29, barixakua: 19:30

30, zapatua: 17:00-19:30-22:15

1, domekia: 17:00-19:30-22:15

2, astelehena: 19:30-22:15

3, martitzena: 19:30-22:15

4, eguaztana: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

### «Piratas del Caribe II»



Zuzendaria: Gore Verbinski.

Antzezleak: Johnny Depp, Orlando Bloom.

Jack Sparrow kapitain limurtzaile eta ezinegonak, Davey Jones, (erdi pirata, erdi olagarroa), Flying Dutchman itsasontzi fantasmako legendazko kapitainarekin odol zor bat duela jakingo du, hautsi ezinezkoa. Ihes egiteko astirik gabe, iteera bat aurkitu beharko dio arazo larri honi. Bestela bizi guztirako esklabu izatera kondenatuta dago. Gauzek okerrera egingo dute Jackek Will Turner eta Elizabeth Swannen arteko ezkontzan muturrak sartzen dituenean.

### «Verano en Berlin» (Z.K.)

Zuzendaria: Andreas Dresen.

Antzezleak: Vincent Redetzki, Maximilian Moritz.

Katrin eta Nike ekialdeko Berlin izan zeneko etxe zahar batean bizi diren bi lagun dira. Nikeren pisuak balkoi bat dauka eta bertan, zerua eta luraren erdibidean, pasatzen du denborarik gehien, Katrinekin berriketan, azken hau bere semearekin bizi baita beheko solairuan. Askotan gau osoa igarotzen dute ixildu gabe. Solasaldietan, kaletik pasatzen diren gizonetaz, beraien bizimoduetaz eta dituzten ilusio eta desioetaz hausnartzen dute.

# Atzera hegira



**1951** . urte inguruko erretratu zahar hau **Anjela Lizundiak** laga digu. Plaza Txikian ateratako argazkia da. Bi emakume ikusten ditugu motor gainean. Bata Anjela bera da, eta bestea Loli Ortiz de Zárate. Arberasen motorra zen hau. Anjelak esan digunez, izugarri gustatzen zitzaion motorrean ibiltzea, “eskolara joatea baino gehiago gustatzen zitzaidan”. Motorrean ibiltzeko gidabaimena atera eta ahal zuen guztietan motorrean ibiltzen zen. Emakume modernoak zirela esan daiteke, garai hartan ez baitziren asko ibiltzen motorrean.



## ESKERTZA

2006ko irailak 22an, 42 urte zituela hil zen **Idia Leniz Azkarate**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





“Gomendatzen dizut...”

saria

Zure oporrak gomendatu nahi dizkiguzu?  
Kontaguzu zein den zure herri, hondartza,  
mendi, ostatu edo dena delako kuttuna  
eta sari bat irabaziko duzu!



Bete ezazu [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) helbidean dagoen fitxa eta bidali  
[elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es) helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.  
Partehartzaile guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!

- 17 urtera artekoentzat: kamera digital bat.
- 18 urtetik gorakoentzat: 2 pertsonentzako asteburuko egonaldia.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: uriak 17.

ZOZKETA: uriak 20.



gazte  
informazioa

Elgoibarko Gazte Bulegoa  
Kultur Etxea, Nalanda plaza

Tel: 943 74 14 61

[elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)

Astelehenetik ostiralera 16:00-19:00  
(astiazkena izan ezik)

Belaustegi  
Baserria



JATETXEA



*Jaletan  
ondo pasatu eta  
mahaiari gozatu!*

Zatoz  
San Migeletarako  
prestatu dugun  
menu berezia  
dastatzera!

San Migel gaina • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 743 102 • Faxa: 943 743 641  
Erreserbak 943 74 31 02 telefonoan  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)



ANTZERKIA

# ¡NASDROVIA! UNA COMEDIA A PARTIR DE LOS CUENTOS DE CHEJOV!

VAIVEN PRODUCCIONES



**Urriak 6, ostirala  
22:15ean  
Herriko Antzokian**

DORLEIN  
**URRETABIZKAIA**



TERISA  
**CALO**

ISIDORO  
**FERNANDEZ**



ERIC  
**ALBERDI**

JOSE RAMON  
**SOROIZ**



NURRA  
**ARNEDO**



*Robin eta Hood*



TEATRO GORAKADA

**Urriak 8,  
igandea  
16:30ean  
Herriko Antzokian**

